


# Nafarroakaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko abenduak 31 / III. urtea / 108. zenbakia

## Metropoli Forala



FELIPE RIUS



## Zer ekarriko 1994ak?

Nolakoa izango da bihar jaioko den 1994. urtea? Jarraituko du Allik Lehendakaritzan? Jaitsiko da Osasuna bigarren mailara? Zer gertatuko da Erriberako ikastolekin? Indurain langabezian geldituko da Banestoren krisiarekin? Zenbat eraikin botako ditu Jaimek? Egingo dute Itoizko urtegia? Eta uholdeek kalteak sortuko dituzte? Askori gustatuko litzaioke galdera hauen erantzuna izatea, baina Ortzik ez du horrenbeste zehaztasunik ematen. Ortzik dio —Lice Moreno Nafarroako Parapsikologia Elkateko zuzendariaren arabera— urte txarra izango dela Errusia eta Kubarako, eta HIESaren kontrako txertoa edo berri pozgarriak izango direla urtearen bukaeran. Halaber, biolentziaren amaiera ekarriko du urtearen hondarrak, bai eta ekonomiaren berpiztea ere. Hori dio Ortzik, eta horrela azaldu du Morenok. Sinistu nahi baduzu, barruan duzue iragarpen osoa. Ez badiozu kasurik egin nahi, ez larritu, ez dira sententziak eta.

**D**uela urte asko, edozein huseria izugarriko aurkikuntza iruditzen zaizun garaian nengoela, Marrakech-en pasa nuen gabon zaharra nire adiskide gehienak metropoli foralean utzita. Hamaikak aldean kale desertuetan barna genbiltzan eta urte berria hoteleko gelan Ceutan erositako whiskya edanez pasa beharko genuela susmatzen hasiak ginen. Halako batean, ate bat ireki zen eta agure batek zerbait hartzera gonbidatu gintuen bere frantsez traketsen. Hasiara batean zer esan ez genekiela geratu ginen, baina elkarri begiratu ondoren sartzea erabaki genuen han geunden lagunok. Lurrean eseri ginen eta aitona hizketan hasi zen. Lehenbizi, barkamena eskatuz edo, Marrokon urte berria ospatzeko ohiturarik ez zegoela esan zigun —egutegi arabearen diferentzietan buruz ere hitz egin zuen—, baina ez genuen kezkatu beharrik. Berak gordeta zeukan aspaldian egindako likore bat eta erretzekoa ez zen falta etxe hartan. Basoak bete zizkigun eta nargile bat piztu zuen. Txanda iritsi zitzaidanean, piska bat besterik ez nuen erre, baina zorabiatu nintzen. Gelako guztiak desagertu ziren eta amildegi baten ertzean ikusi nuen nire burua. Baloi bat bezalako harri handi bat zetorren nireganantz, amildegirantz, aldapan behera, eta ondoan nuela salto egin nuen alde batera. Orduan ohartu nintzen mundua zela amildegian behera zihoan harria eta negarrez hasi nintzen, nik ere nire burua bota behar nuela pentsatuz.

Amets gaizto hartatik ateratzen nintzen, agurea ikusi nuen nire ondoan. Likorez beteriko baso bat pasa zidan horrek ametsetan ikusitakoa ahazten lagunduko zidala esanez. «Iniziatuen taldean sartu zara —esan zidan—, beste askok bezala zuk ere badakizu mundua amildegira beltz baterantz doala; ez dakigu zenbat falta zaion ertzera iristeko, baina malda ezin da askoz luzeagoa izan. Hori ahazteko, alde batetik, eta, bestetik, urte berri batera iritsi ahal izan garena ospatzeko, mozortu egiten gara mundu guztiko iniziatuok gabon zaharrean. Ez larritu, asko dira etxe honetatik pasa diren zure metropoli foral horretako lagunak eta sekretoak ongi gordetzen jakin izan dute orain arte. Gauza bat besterik ez dizut eskatu behar orain, hemendik aurrera, bizi zaren bitartean eta aurretik mundua amildegira iristen ez bada, gabon zaharrean har zazu urtero kopa bat nire oroimenez».

Geroztik, metropoli foralean nahiz horren ospe handirik ez duten hirietan, nire kopa altxatzen dut urtero Marrakecheko agurea gogoan dudala eta mundua gero eta abiada handiagoan doala nabaritzen dut nire barrenean; hala ere, lasai nago nire inguruko guztiek mundua bukatzera balihoan edaten dutelako. Ni bezalako iniziatuok dira, bakardadetik salbatzen gaituen talde bateko partaideak sentitzen gara.

## Gure aukerak

### ERAKUSKETAK



**Lola del Castillo** artistaren erakusketa zabalik dago Iruñeko Pintzel Galerian, Abejeras kalean. 'Entre dos luces' izeneko erakusketak urtarrilaren 7a arte iraunen du. Astelehenetik ostiralera irekitzen dute, goizean 10.00etatik 13.30etara, eta arratsaldetan 16.30etatik 20.00etara.

**Jesus Muniain** eta Alberto Sanz artisten erakusketa zabalik dago Zizur Nagusiko Kultur Etxean urtarrilaren 6a arte. Zeramikak, Eskultura eta Muralak ikus daitezke. Ordutegia hauxe izango da: lan egunetan, arratsaldeko 19.00etatik 20.30etara; jai egunetan, goizeko 12.30etatik 14.00etara.

**Eguberrietako irudiak** izeneko erakusketa ikus daiteke Iruñeko Hirigintza Arloko erakusgelan, urtarrilaren 6a arte. Goizeko zein arratsaldeko ordutegia dauka.

### ANTZERKIA



**Antzekizuna Txotxongilo** taldeak neska-mutiko guztien dako 'Josetxo eta Koloreen herrirako bidaia berezia' izeneko lana eskainiko du Noainen heldu den ostegunean, hilak 6, arratsaldeko bostetan. Ekitaldia Gabonetako egitarau bereziaren barruan dago.

**Alhama taldeak** 'Con la vida del otro' izeneko antzerki lana taularatuko du heldu den asteartean, hilak 4, Korellako Arte eta Lanbide Eskolan. 20.30etan izango da emankizuna.

### MUSIKA



**Urteberriko kontzertua** eskainiko du Korellako Musika Bandak bertako Arte Eskolan, heldu den astelehenean, hilak 3. Ricardo Marcilla maisuaren gidaritzapean, arratsaldeko zortzietan izango da kontzertua.

### ZINEMA




**'Ghost Dad'** izeneko pelikula ikusteko aukera izango da Korellako Kultur Etxean, datorren igandean, hilak 2, arratsaldeko lau t'erdietan. Festa hauetarako antolatuta den egitarau berezi bezain aberatsaren barruan izango da emankizuna.

## Azedo-Arkijas

Noizbait bukatu behar, eta ibilbide hauek ere amaiera daukate gaurkoan. Nafarroa osoa kurritu dugu mendiz, herriz eta zelaiz, baita Nafarroatik kanpoko zenbait bazter zapaldu ere. Heldu den astetik aurrera nafar kronika aztertuko dugu astero, pitin bat saltsatu eta zirikatze. Talde ezberdinek antolatzen dituzten mendi ibilbideen berri emanen dugu, baina, era laburtuan. Azkenerako Nafarroa eta Arabako muga bitarteko ibilbide atsegina aukeratu dugu, Azedo eta Zuñiga Lanaibarreko herrien ondotik.

Ibilbidea Azedo eta Santa Kurutze Kanpezu (Araba) bitarteko errepidean sortzen da, eta bertan hegoalderuntz daraman pista hartuko dugu. Pista eskuinean utzi eta bidexka bati jarraiki, Arkijasko baselizara helduko gara. Zuñigako dermioan dago, Lizarr-Gasteiz trenbideko zubia-aren gainean, eta erromes asko jasotzen ditu urtero, Zuñigatik zein Santa Kurutze Kanpezutik. Bertan izan ziren bi guda bortitz, karlista eta liberalen artean. Bata 1835ko



abenduaren 12an eta bestea 1836ko otsailaren 5ean. Bietan Zumalakarregi karlista atera zen garaile, baina hildakoak anitz izan ziren.

Baselizan dauden bideen artean eskuinekoa hartu eta pistari jarraitu behar zaio, segituan ezkerretara jotzeko. Bide honek eramango gaitu, arte eta birlanaketa ugariren artean, berriro errepidera heldu arte. Hemen arteak dira nagusi. Errepidetik El Pare-

don izeneko tokira helduko gara, eta Ega ibaiaren ertzetik zubiraraino. Hor barna aurkituko dugu Errota Berri izeneko parajea. Errota, gaur egun franko zaharkituta, duela 25 bat urte gelditu zen. Nahiz eta Lanan izan Zuñigakoek aprobeztatzen zuten.

Berriro itzuliko gara zubira eta, ibaiaren ertzetik, iturburu xume bat aurkitu arte segitu. Hortik aurrera errepidera, eta hasierako puntura.

### ASTEKO PERTSONAIAK



**Jose Miguel Etxabari**  
Banestoko zuzendaria



**Juan Cruz Alli**  
Lehendakaria



**Iñaki Cabases**  
EAko parlamentaria

**G**orriak eta bi ikusten ari da egunotan Ameskoako zuzendaria, Banestoren krisiak agerian utzi duen egoera ez baita batere pozgarria ez baikorra egotekoa. Bankuko arduradunek lasaitasun mezuak zabaldu dituzte, baina hainbeste kostata lortu denak ezerezean gelditzeko arrisku nabaria du. Etxabari egundainoko talderik indartsuena zuen aurtan, munduko talderik onena, alegia. Indurainen inguruan Minguez lehengo taldea eta izugarrizko azpiegitura zehaztuta zeukan, baina goian gastuak murriztu eta egokitu behar baldin badira, ez da oso etorkizun garbirik antzematen. Asteazkenean bertan, lankide bat Banesto txirindulari taldeko buruekin harremanetan jartzen saiatu zenean, erantzun argia jaso zuen: «Une honetan, azkena taldea da».

**E**skutitz baten bidez erantzun zien Allik euskal presoan aldeko Arantzazuko baraualdian parte hartzen ari direnei, haiek igorritako eskutitza jaso eta berehala. Ordezkaritza batek Nafarroako Gobernura jo zuen asteartean, Allik preso nafarrak Iruñeko kartzelan biltzearen alde emandako hitza bete zezan eskatuz. Lehendakariaren erantzuna izan zen gestioak egin «egin dituela», baina horren gaineko eskumena Estatuari dagokiola ziurtatu zuen. Horregatik, arduragabekeriak jokatu izanaren akusazioa ukatu egin zuen. «Gure esku zeuden baliabide guztiak jarri ditugu sinesten dugun helburua lortzeko, baina konpetentziarik ez izateak mugatu egiten du helburu horiek lortzeko ahalmena».

**E**usko Alkartasunak proposatuko hiru zuzenketari esker, hasieran aurrikusten zen baino 137 milioi pezeta gehiago izango du aurtan Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak. Urteroko borrokan ia betiko emaitza lortu zen; abertzaleek eskatu baino gutxiago, eta UP-Nkoek nahi baino gehiago. Sozialisten gusturako. Oraingoan 144 milioi pezeta gutxiago aurrikusten zuen gobernuak euskararako, eta sozialistek batzordean erakutsi zuten jarrerak —mozioetan abstenitzea—, ohi baino zailagoa izan zitekeela erakusten bazuen ere, azkenean EAren zuzenketei baietza eman zioten sozialistek. HBk 237 milioi pezeta gehiago eskatzen zituen, tartean sindikatuek euskara enpresetan bultzatzeko eskatutakoa betetzeko, baina ez zioten aditu egin.

### AHAZTU GABE!

**GOARDIA ZIBILA**, presoak, epaileak, militarrek, udaltzainak eta Gurutze Gorriko objektoreak bilduko dira gaur Jarauta, San Lorenzo eta Navarrerria kaleetan, urte zaharrari agurra emateko. Izan ere, intsumisioa da aipatu karriketako tabernariak aurtengo urtezahar gauerako hautatutako gai nagusia. Tabernak kartzela, epaitegia, koartela edo udaltxea bailiren apainduko dituzte, eta bertaratzen direnek eszenatoki horiekin bat datozen mozorroak jantzi beharko dituzte. 1993an ehun gazte nafar baino gehiago kartzelaratu dituzte intsumisio izateagatik, eta ekimen honen xedea guzti horiek omentzea da. Horretaz gain, talde antimilitaristek deiturik, intsumisioaren aldeko afaria eta jaia izanen da gaur gauean Iruñeko kartzelaren aurrean. Gaur kartzelaren barruan pasatuko duten 33 intsumisioei urte berria lehenbailehen zoriontzeko aukera paregabea izanen da.

### ADI!

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

#### RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

#### AMODIOZKO Gutun II.

Berrigara Lehiaketa dela eta, bertako elkartearen partaide bati elkarrizketa egingo dio Euskalerrria Irratiak heldu den asteartean, 'Zokobetailu' saioaren barruan. Lehiaketa honetan parte hartzeko lanak urtarrilaren 7a baino lehen bidali behar dira.



HERRIZ BERRI



Bertizarana

## Aukera berriak turismoan

P. U. / IRUNEA

Bertizko Partzuergo Turistikoaren lehendabiziko balantzea «oso positiboa» izan dela, eta urte hasieran programaturako ekintza guztiak burutu direla azaldu zuen prentsaurrekoan Pedro Perez Uriz presidentek joan den astean. Berrogeita sei milioi pezetako aurrekontu batekin ekintza guztiak oso harrera ona izan dutela azaldu zuen presidentek, eta nahiz eta oraindik erantzunari buruzko datu zehatzik ez izan, ostalaritza arloan jasotako hainbat iritzi azaldu zituen. Horien arabera, udako hilak aurrekoak baino hobekiak izan dira, eta askotan ezin izan zaie eskaera guztiak aurre egin.

Urte honetako behin-behineko balantzearekin batera, azken berrikuntzak azaldu zituen Bertizko Partzuergo Turistikoak. Eta horien artean turismoari begira eskainiko dituzten oferta berriak izan ziren azpimarragarrienak. Horrela, asteburuetako eta aste osoko egonaldiak eskainiko dira aurrerantzean, eta horretarako Euskal Herria, Errioxa, Madril,artzelona, Valentzia eta Alacanteko agentzien bidez egingo da lan.

Eskaintzak urte osoa hartuko du, Aste Santua eta udako hilak kenduta. Asteburuko egonaldi batek 8.760 edo 5.216 pezeta balioko du —logelak edo apartamentuak— eta 25.763 edo 11.485 aste osokoak. Hotelek ere beren eskaintza egingo dute eta 10.596 kostako da asteburu bat,



Inguruaren promozio turistikoa bultzatu nahi da.

eta 32.220 aste osoa. Horren barruan, ordu bateko zaldi eta bizikleta alokairua, eta Zugarramurdiko leizeetarako sarrera.

'Bailara lasaiak' izeneko tripitiko kaleratu du Partzuergoak, eta bertan azaltzen dira Beratik Baztaneraino eta Zugarramurditik Eratsuneraino hartzen duen inguru honen ezaugarri eta berezitasunak. Gida hau udal eta Partzuergoan sartuta dauden e-

rakunde eta denda guztietan salduko da, eta aspaldian zegoen eskaerari erantzuteko argitaratu da.

Aurten egin diren ekintzen artean Garapen Turistikoari buruz egin zen egitasmoa, Jardunaldi Gastronomikoak eta seinalizatu diren ibilbideak azpimarratu zituzten Partzuergoko arduradunek. Jardunaldi Gastronomikoe-tan aipatzekoa da oso emaitza politak izan dituztela, eta osta-

lariek aurrera jarraitzeko asmoa azaldu diote Partzuergoari. Halaber, 12 ibilbide prestatu dira inguru osoan zehar, bai oinez bai mendiko bizikletaz egiteko. Ibilbideak, Donamarian, Basaburuan, Leurtzan, Basakaitz, Mendaur, Galardea, Xorroxin, Alkurruntz, Akelarrea, San Juan Xar, Zia erreka eta Aiturian prestatu dira, eta orokorrean 200 kilometro inguru dira.



ETXARRI-ARANAZko Udala oinez, mendiko bizikletaz edo ibilgailuz egiteko ibilbideak prestatzen ari da herriko dermian, eta heldu den udaberrian bukatuta egongo dira. Lau dira ibilbideak, 90 milioi pezetako aurrekontuarekin, eta bertan seinaleztapena, harrera etxea, ostalua, zerbitzurako ingurua eta aparkalekua eraikiko da. Horrekin batera gida zerbitzu bat eskainiko da, eta bizikletak eta zaldiak alokatzeko aukera paratuko da Dandolintxulon, udal igerilekuaren ondoan. Ingurua, izan ere, aproposa baita horretarako. Trikuharrien inguruan irekiko dira ibilbideak, eta herriko bisitariak erakargarriak diren ekitaldiak eskaini nahi dizkie Udalak. Ibilbideak hauek izango dira: Irumugeta-Miruataza, 12,5 kilometro; Iraigorri-Fagamendi, 8 kilometro; Fagamendi, 6 kilometro eta Beizeta-Fagamendi, 9 kilometro.

TAFALLAko Udalak % 5 igoko ditu talde kulturaleri ematen dizkion dirulaguntzak, nahiz eta praktikan taldeek antzera kobratu. AEK-k 137.000 pezeta jasoko ditu, Tubala Uxo korralak 160.000, Higuera argazkigintza taldeak 158.000 eta Gabalzeka antzerki taldeak 132.000 pezeta. Hortik behera beste hainbat talde daude, dozena osatu arte.



ZENTRONIKOko Udalak industrialdea eraikitzekeo Gobernuak emandako dirulaguntzei errekurtsua aurkeztuko die, aho batez onartutako mozio baten arabera. Gobernuak dirulaguntzen % 50 aurreratu zituen, lanak 1993a baino lehen bukatzeko baldintzarekin, baina lanak oraindik ez dira hasi ere egin. Alkateak azaldu zuenez, «kontseilaria hasieratik zegoen proiektuaren kontra, baina Parlamentuaren agindua jaso zuten, derrigorrez bete beharrekoa zen». Udalbatzan nahiko eztabaida gogorak izan ziren, batez ere UPNko bozeramailea soluzioren bat bilatzen saiatu zenean. Berehala ikusi zen irtenbiderik ez zegoela, eta mozioak aurrera egin zuen.

FUNES izan zen hondar uholdeek gehien kaltetu zuten herria. Nahiz eta zelai eta baratza frankok kalteak izan, bizilagunek eskertu egin zituzten ibaietan azken urteotan izan diren lanak eta zenbait azpiegitura, horiek gabe askoz ere handiagoak izango baitziren galerak.

Iruñea

## Eguberria eta Belengo Izarra azalduko ditu Planetarioak

IRUNEA

Iruñeko Planetarioak Eguberri buruzko programazio berezia antolatu du heldu den asteterako, hilak 4, 'Belengo Izarra' izeneko ikuskizunarekin. Bertako taldeak ekoiztuta, Javier Armentiarren astrofisikoaren zuzendaritzapean, ohitura, erlijioa eta gertaera naturalak nahasten dituen garai honetako giltza batzuk aurkezten ditu 45 minutuko iraupena duen programak. Muntai joan den asteazkenean eskaini zuten, baina kontuan harturik izan zuten harrera ezin hobea, errepikatzea erabaki zuten arduradunek.

Muntai berezi honetan historia eta astronomia nahastuko dira, eta Iruñean, euria izan

ezean, ikusiko zen ortzia erakusten du lehendabizi. Horrekin batera, Eguberria abenduaren 25ean ospatzeko zergatia azalduko du Armentiak. Izan ere, nahiz eta erlijioa Jesusen jaiotzari lotu, hasieran neguko solstizioa eta erromatar tradizioari lotutako ospakizuna zen Eguberrikoa.

Hori guztia azaltzeko lehen Eguberriari eta Herodes erregeari buruzko informazioa lantzen da saioan. Ondoren Belengo Izarra sortu zuen fenomenoaz azalduko dute Planetarioko arduradunek. Adituen ustetan, Jupiter eta Saturnoren arteko hurbiltzeak eta kometa batek edo izar baten eztandak azalduko lukete historia liburuetan merezimendu osoz idatzita gelditu den gertakizun ikusgarri hori.



Iruñeko Planetarioa.

J.L.

**Barruko Jantziak,  
Galtzerdiak ...**

Martín Azpilicueta, 16 Tel. 279316 - 31011 IRUÑA

**B**ihar hasiko den urtea ez da urte esanguratsua, ezta funtsezkoa ere, baina hurrengo urteetan sumatuko den hobekuntzarako zubi lana egingo du. Hau da, behintzat, Lice Moreno astrologo eta parapsikologoak igerri diguna, urte berriaren atarian bere kristalezko bolatxoan ikusten duenez galdegin diogunean. Ortzia-aren patua, berak esaten duenez, zientzia baita.

## 1994, ez ur ez ardo

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

Gaiari buruz iritzi franko bada ere, ezin uka etorkizunari eta patuari izugarritzko garrantzia ematen diotela askok, eta igerle, medium eta gisa bereko gaietan adituek bezero franko dituztela, jakinmin gordina eta bizitzak dakarkigunaren berri izan nahia ez baitira barruko makalak. Bazuendako gezur eta topiko hutsak direnak, itsu-itsuan jarraitu beharreko egiak dira besteendako, eta horren lekuko Nafarroan egun lanean ari den aditu andana.

Lice Moreno da 1992an sortu zen Nafarroako Parapsikologia Elkarte zuzendaria, eta magikoa eta arraroa duen kutsu oro ezabatzen saiatu da beraien jardura azaldu duenean. «Gaur egun badakigu burmuinaren % 4

**U**rte honen amaieran HIES gaitzaren kontrako txertoa agertuko da edo behintzat aurkikuntza itxaropentsuak izango dira».

baino ez ohi dugula erabiltzen gizakiok, eta gainontzeko % 90 inguru lantzeke dagoela. Botere ezohizkoak dituenak, hain zuzen ere, gehiago landutako burmuina dauka, eta ez du, beraz, zerikusirik sorginekin. Barneko lanari eta arrazaren bilakaerari lotutako gaia da, eta parapsikologia da, hain zuzen ere, gizakiaren ahalbideak ezagutu eta bultzatzea».

Erabat sinetsirik azaldu ditu, beraz, bere teoriak, eta astrologiak duen maila zientifikoa azpimarratu du. «Nik ez dut igerlearena egiten, planetekin eta ortziarekin egiten baitut lan. Eta hori zientzia da, ez besterik». Hala ere, etorkizuna halabeharrezkoa ez dela ohartarazi du segituan. «Astrologiak jarrera eta jokabide nagusiak aurreratzén ditu, baina lan egiteko tresna besterik ez da. Ez, inondik inora, sententzia bat. Tresna honen bitartez etorkizuna antzeman dezakegu eta horren arabera jokatu, baina aldatu, alda daiteke. Are gehiago, gauza txarrak aldatu egin behar dira».

**ERRUSIAN ETA KUBAN GATAZKAK** Orokorrean, 1994a trantsizio-ko urtea izango da mundu osoan eta baita Euskal Herrian ere. Oso ona izango den 1995erako trantsizioa, hain zuzen ere. Mundu zabalean funtsezko bi gatazkak izango dute nagusitasuna, Morenok azaldu



duenaren arabera. «Heldu den urtean Urano Aquariusen sartzen da, eta oraindik izango da gatazka eta istilu franko Errusian. Kuban, bestalde, krisia areagotu egingo da, herrialde horretan Capricornusek agintzen baitu. Fidel Castrok gorriak ikusiko ditu bere postuan jarraitzeko, eta bere erregimena zabaldu eta anitzago egiten ez badu, agintetik kanpo ikusten dut».

Gizarte gaietan azpimarratu du astrologoak oso berri pozgarria: 1994eko bukaera HIESaren kontrako borroka aurrerapauso handia emango du. «Urtearen amaieran gaitza malda behera hasiko da, eta 1995 hasieran

edo, gaitzaren kontrako txertoa agertuko da edo behintzat aurkikuntza itxaropentsuak izango dira horren inguruan». Hala ere, arreta ez galtzeko ohartarazi du segituan igerleak, 1994. urtea «franko lizuna» izango baita. «Oso urte sexuala da, eta komunikabideetan eta beste tokietan frankotan agertuko da sexua, elementu erakargarri gisa. Beraz, kontuz ibili beharko da».

**KRISI EKONOMIKOAREN AMAIERA** Morenoren usteetan, itxaropenarako bidea erakusten duena ekonomia arloa da. Azken urteotako krisiak hondoa joko du

uda aldera, eta hortik aurrera bi urte benetan oparoak izango dira: 1995a eta 1996a. «1995ean etorriko da berpizte ekonomikoa, arlo guztietan. Ilargia Aquariusen sartuko da, eta protagonismo itzela izango dute langileek eta mugimendu sindikalek. Horiek izango dute progresorearen giltza eta gakoa. Hurrengo bi urte horiek oso onak izango dira, eta dirua itzuliko da, barra-barra. Ez da, beraz, ezkortasunerako arrazoirik».

Euskal Herrian ez da hainbeste sumatuko ekonomiaren hobekuntza hau, baina gertaera esanguratsuak izanen dira biolentziaren eta euskal gatazkaren in-

guruan. «1995a bortizkeriaren amaieraren urtea izanen da, baina aurten sumatuko dira oraindik aztarna batzuk. Adibidez, uda bukaeran, eta bereziki irailean, izango dira ekintza gogor batzuk, baina hortik aurrera, eta batez ere 1995ean, biolentziaren amaiera etorriko da». Horretan partehartze handia izango dute, Morenoren esanetan, gazteriak eta presoek. «Euskal Herriko gazteriak bide berriak jorratuko ditu, eta jarrera nagusiek iraultza kulturetik joko dute, biolentziatik urrun. Halaber, presoek zeresan handia izango dute, oso urte berezia izango baita presondegitan. Izan ere, 1994ean Saturno Piscesen sartuko baita, eta horrek dakar mugimendua, istilua; baina

**E**uskal Herriko gazteriak bide berriak jorratuko ditu 1995ean, eta jarrera nagusiek iraultza kulturaletik joko dute».

1995ean Saturno Aquariusen sartuko da, eta horrek esan nahi du presoek garrantzi handia hartuko dutela. Orobat, Euskal Herria jabetu egingo da biolentziaren ondorioen larritasunaz, eta horrek ekarri dituen gastu itzelak errekuperatzea oso zaila izango da. Hortik gazteriak hartuko duen garrantzia».

**EAJ** Horrekin batera, **ESPAINIAKO GOBERNUAN** 1995ean EAJ Espainiako Gobernua sartuko dela igerri du Morenok, PSOEren barruan izango den krisia dela eta. «Felipe Gonzalezentzat urte txarra izango da, eta hestean edo liseriketeta-aparatuan izango duen gaitzak jota, agintea utziko du. Ez da, baina, urte ona izango Aznarrentzat ere, biak Pisces baitira. Beraz, EAJk Espainiako Gobernua sartzeko aukera izango du, krisiari aurre egiteko. Orduan garrantzi handiagoa eskuratuko dute Ekonomia ministroek».

1995ean zabalduko diren aurrikuspen onak, baina, ez dute jarraipenik izango aurrerantzean, eta mendearen bukaera txarra izango dela dio parapsikologoak, krisiak alde guztiak jota. «1995ean Pluton Sagitariusen sartuko da, eta horrek eramango du borroka armatua ideien borrokara. Filosofia berriak eta alternatiboak nagusituko dira, gazterien urtea izango baita hori». Mendearen hondarrek urteetan, baina, arazo eta istilu ugari sortuko dira, iraultza berri honen kontrako eta aldekoen artean. «Ez da astrologoa izan behar krisiak dena ukitu duela ikusteko. Krisi soziologikoa, kulturala, morala eta filosofikoa baitauka gure munduak. Mendearen bukaerak ekarriko digu krisi honen sakoneko iraultza, eta hori antzematen hasia da dagoeneko». Orduan izango dira, Morenoren ustetan, gizakiaren kontzientziaren funtsezko aldaketak, baina horrek fundamentalismoaren sorrera ekarriko du, era berean. «Ideia berriek beti dakartzate kontrako joerak, eta fundamentalismo erlijioso eta filosofikoa azaleratuko dira, hain segur. Horiek aldatzen ez badira, arazoak izango dira, eta aldatuta ere, arazoak eta istiluak sortuz aldatuko dira».

**F**elipe Gonzalezek 1995ean utziko du agintea, gaitzak jota, eta EAJk Espainiako Gobernua sartzeko aukera izango du».

*mintzoak*

## Bertsolariak

● Berrehun mila euskaldunek segitu omen du Bertsolarien Txapelketaren azken saioa zuzen zuzenean, bertatik bertara zein komunikabideren batetik. Marka da. Lau euskaldunetatik batek, gutxi gora behera, unibertsoan dauden guztiak kontuan hartuta. Bistan da bertsolari txapelketa dela, urrutitik, euskal kulturaren agerkaririk jendetsuena, garrantzikoena, handiena. Ukaezina da.

Bere bilakabidearen une jakin batean Europako —eta are munduko— kultur gehienek ezagutu duten fenomeno da bertsolaritzarena. Toki gehientsuenetan inprentak lehen, eta ikusentzuteko komunikabideek gero, gutxiagotu zuten ahozko adierazpide honen indarra, desagertzaraino edo anekdota huts bihurtzaraino. Euskal Herrian, oraindik ere, 1993 urtearen bukaeran, bertako hizkuntzaz sortzen den kulturaren gailurra da. Eta gu harro.

Ergelkeria erraza da anakronismo honen erabateko kritika egitea, guztiz baliogabekotzat jotzea, deskalifikatzea. Baina ergelkeria da, baita ere —eta ez txikiagoa—, analfabetismoari eginiko monumentu itzel hau neurritz gain goraiatzea eta bera dela kausa pozaz txoratzen egotea; bertsolaritzaren arrakasta sintoma bat da, euskaraz sortzen duen kulturaren eritasunaren sintoma bat. Eta sintoma horrek —batez ere beste hainbat sintomaren ondoan jartzen denean—, arazo gorria eta arazoaren gorria salatzen du: euskararen beraren eritasuna, hain zuzen ere.

Nik gauza bat ikusten diot berreko ingurutik erazitako bertsolaritza berri honi txalotzeko modukoa: belaunaldi zaharrak eta berriak hizkuntzaren inguruan uztartzeko ahalegina, eta, beharbada, pixka bat haruntzago joanez, belaunaldi zaharragoengan euskaraz egiten ari den lan berriekiko interesa edo jakinmina apur bat piztu nahi izatea, berriagoengan lan horien beraien bultzatzaile eta protagonista

izateko interesa pizten denarekin batera. Horixe iruditzen zait txalotzeko, baldin eta horiek badira helburuak, eta helburuok erdiesten diren heinean. Helburuak bestelakoak badira, edo eta bide honetatik ez badira lortzen, bertsolaritza ez zait ia ezertarako ere interesatzen.

Artikuluaren hasieran emandako datuari begira jartzen bagara, bertsolaritza hiztun-komunitatearen gehiengoaren baitan erroto dela ez dago ukatzerik, bazterrean geldituriko hainbat eta aurkako iritziak ere badirela ukatzerik ez dagoen bezala. Horretan asmatu dute, nonbait. Baina, bestalde, esan behar da ez duela ematen bertsolaritzak agrafia eta analfabetismotik li-

ohiartzunarekin, edo eta jendeak ez duela irakurtzen idazleak txarrak direlako etabar. Argudio eskasak, horiek denak, batez ere jakin badakigularik 'Bertsolaria' aldizkariari harpidetza bat erdieste Osasunari aurten partidu bat irabaztea baino gehiago kosta ohi zaiola, eta nekearen nekez ari dela —normala da; jendeak ahozko kultura nahi du, ezta?—. Etsi dezagun: analfabetoek ez dute inongo hizkuntza kultur maila jaso.

Bertsolaritzak, gainera, euskararekiko kontzientzia txarra garbitzeko balio dio hainbati, batez ere Oteizarengandik datozen topikoak bazkatzen —«todo aquel vasco que no tenga algo de versolari es un pobre hombre»—



bratuko gaituenik, pixka batean behintzat. Bertsolarien frontoiek eta are belodromoak betearazten dituzten bitartean, euskaraz egiten den egunkari bakarrak ez du hiru urteetan lortu euskaldungoaren % 2ra iristerik. Adibide bat da. Izango da esango duenik batek ez duela zerikusirik bestearekin, edo eta bertsolariak pakean utzi behar direla eta haien jardunak ez duela zerikusirik halako edo bestelako idatzizko komunikabideak lortzen duen

dituen jendearentzat, edo eta beste topiko horrekin sinistuta daudenezat: bertsolariak direla euskal hizkuntzaren sena eta aberastasuna gordetzen dutenak esaten duena, alegia. Azken hau dela eta, nahi duenak Eginetik txapelketa egunean zortzi bertsolarioi eginiko elkarrizketatxo hartzea eta besteak definitzeko zein ezizen bat jartzeko esaten dituzten hitzak ikustea badauka: «txukuna, serioa, kontrolatua, segurua, freskoa, poeta,

azkarra, bizia, azeria, trinkoa, irudimentsua, gizon, listoa...» horrelako makina bat. Piper pixka bat gehiago nahi dutenean «birgeroa, jefea, lirikoa, artista, gramatikoa, rebeldea, inkonformista» eta gisakoak esaten dituzte, edo, bestela, gazteleraz ari dira besterik gabe: «pajari-to, la bestia, sabelotodo, la maquina, el pati...». Ez diet nik horiek bezalakok erabiltzeko eskubidea ukatuko, baina bestelako irakaslerik gomendatuko nioke ohiz kanpoko adjetibo bat ala lokuzio dotore bat ikasi nahi duenari: zenbait idazleren lana, adibidez, edo aita Morokoa zenarena, Azkueren hiztegia bera, edo eta haien gurasoak, urrutirago gabe; Peñak behintzat badaki bere amak 'pokopaxintxi' esaten ziola ezinez haurra zelarrik. Aldea badago, eta ederra gero, hau bezalako bat eta goian idatzi bezalako edozeinen artean... Arrazoa eman beharko al diogu euskararen errota blokeaturik dagoela esaten zuen egungo idazle hari?

Eta, hasi ezker, bada beste kritika bat aise egin daitekeena: emozio faltarena. Hain zen nabarmena txapeldunak bete behar zuen perfila (bertsolari ona, gaztea, baina ez gazteegia, eskolatu, letraduna, alegia, gipuzkoarra, moderno itxurakoa eta politika-arazoetan alde batera jendaurreko jarrera hartuta) non zantzaz gutxi baitzegoen txapeldunaren izenez. Eta kendu ahal zion bakarrak sabel amorruek hezur huts eginda uzteko bidean... Apostua egiten has daiteke hiru urte barru txapela nork jantziko duen gaia hartuta. Eta, gauzak goitik behera aldatzen ez badira, asmatzeko probabilitate handiekin. Nik badaukat nire kandidatoa. Nor? Hona pista bat: Moises Jaso ez, behintzat.



Jon Alonso *Itzultzailea*

*mintzoak*

## Bertsolari Txapelketa

● Zoriontasun osoan burutu da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa, aurtengoarekin hamekagarrena. Txapelketa ongi antolatu izan da eta bertsozaleen artean arrakasta haundikoa. Jende aunitz bildu da haitaldi guzietan; azken-laurdenetan, final-aurrekoan eta batez ere Finalean, bertsolaritzaren historian ezpaitugu holakorik ikusi, guzien gainekoa izan baita. Bertsolariak erakutsi dituzte beren dohain miresga-

rriak. Zorionak parte hartu duen guzietari eta batez ere Egaña txapeldunari.

Orain ohar batzuk behar nituzke erakutsi. Ni ados nago Euskitzerekin, bertsoetan mintzaira zaindu behar dela erdarakadarik sartu gabe eta xuxen mintzaturik euskaraz eskatzen duen bezala. Bertsolariak behar du xukun mintzatu eta ez zenbaitek erabili dituzten hitz eta solas itsusiak hala nola: 'malaletxean', 'latiga-zoa',

'masokista', 'falta de riego', 'akordatu', 'klasista', 'expresatzea' eta aunitz gehiago ere eta itsusiagokoak erabili bait dituzte.

Bertzalde, gaietan eta oinak eman direnean, izan dira zenbait hitz erdaldun, gure Iparraldeko bertsolarien ulertu ez dezaketena, horretarako espainol erdarare ulertu behar baita. Gero bertze izen bat ere aunitz errepikatu zena 'kartzelako gaietan': 'Bankua'. Horrek badauka bere izen

jatorra, alki edo aulki, eta hau ikastolako haurrek ere badakite.

Gogora heldu zait Xalbador zenak erraten zuena: «Nik ez dakit aski espainol eta frantzes, zenbaiten eskuara konprenitzeko».




Mariano Izeta *Erlojularia*

## Gazteendako Zokoa



### XAKEAN



Nafarroako Taldekako xake txapelketako laugarren jardunaldiko partida. 1993ko azaroaren 6an jokatua.

Carlos Soler, 2.135 ELOkoa (Tuterako Santa Ana)-Jose Maria Muruzabal, 2.335 ELOkoa (Iruñeko Casco Antiguo).

1. b4, a5; 2. b5, Zf6; 3. a4, d5; 4. e3, e5; 5. Ab2, Ad6; 6. h3, c5; 7. Zc3, 0-0; 8. De2, d4. Irekiera bitxia egin dute. Beltzek erdigunea hartu eta indarra erakusten ari dira. 9. Za2, Ae6; 10. Zf3, h6; 11. e4, bZ-d7; 12. d3, c4. Jokaldi honek bi helburu ditu. Alde batetik, zuloa irekitzea: 13. c4, Zb6; 14. Zd2, Gc8. Bestela, zaldiari 'c5' laukia eskaintzea, egoera ongi menperatzeko.

13. g4, Zc5; 14. Zc1, d3; 15. d3, fZ-d7; 16. Aa3, Gc8. Alfilarren zutabe hau, barneratzeko bidea da. Eta horretan ari dira beltzak. 17. Zd2, Zb6; 18. Ac5, Gc5; 19. Dd1, Gc3; 20. Ae2, Ab4; 21. 0-0. Erregea ahul geratu da, baina momentuko presioa gutxitu dute txuriek.

21...., Dh4; 22. Eg2, fG-c8; 23. Zf3, Df6; 24. Zd2, Gc2. Estrategiak aurrera darrai. Gaztelu hori mina egiteko modukoa da. Ikus koadroa. 25. Zc4, Zc4; 26. c4, Gd2; 27. Db3, h5. Txurien defentsa hauskorra da oso. Bi aldeak babesteko tresna egokirik ez du aurkitzen. 28. Ga2, g4; 29. g4, Df4; 30. Gd2, Ad2.

Posizioa oso kaskarra dute txuriek. Ez dago partidari eusterik. 31. Dd1, Ac4; 32. Ac4, Gc4; 33. Ze2, De4 xa; 34. f3, De3; 35. Gf2, d3; 36. Db3, Ae1; 37. Dc4, Df2 xa; 38. Eh1, Df3 xa; 39. Eg1, e2. Nahikoa! Beltzek eraso geldoa baina gerazina burutu zuten.

# Gustora egoteko leku aproposa

LAURA MARCOS

Nere aitaren herria Gazteluan dago, hemendik kilometro askotara. Ni txikia intzanean herri hortara joaten ginen uda pasatzera. Ez dut batera gustoko hainbeste kilometro kotxez egitea, baina nere leku maitean egongo nintzela pentsatu eta kilometroak ez zitzaizkidan axola.

Herrira ailegatzean egiten nuen lehenengo gauza nere gurasoei 'La majada-ra'—tokiaren izena— joateko baimena eskatzea zen. Beraiek auzokoak bisitatzea zihoazen bitartean, ni 'La Majada-ra' nihoan, baina, noski, bederatziatan etxera bueltatzeko.

Urruti samar zegoen eta bidean nekatzen nintzen. Baina gogokoen nuen lekuan etzan—zuhaitzen gerizpean— eta neke guztiak kentzen zitzaizkidan. Triste nengoen ez nuen lagun bat behar, orain bezala, ez. 'La

majada-ra' joan eta zuhaitz eta loreekin hitz egiten nuen. Beraiek nere lagun onenak ziren, ulerkor eta leialak. Eta oso kontseilu onen emaleak!

Beroa egitean, oso hurbil zegoen ibaiara joaten nintzen bainu bat hartzera (Bainu bat, eta batzutan marfundi bat ere!). Ez dut inoiz ahaztuko behin batean gertatu zitzaidana! Arroparekin eta guzti nengoela, ibaira erori nintzen. Gainera, gaua zen eta hotz izugarria zegoen. Etxera ailegatzean, ze nolako errieta, gurasoek egin zidatena! Hurrengo egunean kriston sukarrarekin hiri hurbileneko hospitalera eraman ninduten. Oso gaizki pasatu nuen, baina orain, oroitzen naizen baikoitzean barre algaraka hasten naiz.

Horrela urteak eta urteak pasatu ziren, eta urte batean, nere izebari horrelako zerbait entzun nion: «Ikusi duzu Antoniok erai-

kitako etxea? Ba, 'La Majada' jarri dio izenez. Izen polita, ezta?». Momentu batez arnasa gabe gelditu nintzen. Gero, korrika hasi nintzen 'La Majada-rantz'. Beharbada Antoniok bere etxeari jarri zion izena, ez zuen ezer ikusirik 'La Majada' lekuarekin. Beharbada izen hori bakarrik gustatzen zitzaiolako jarri zion, eta ez 'La Majada-n' egoteagatik etxea. Baina ailegatzerakoan, justu nere lekuan etxera eraiki zutela ikusi nuen. Nere zuhaitza moztu zuten. Ezin nuen sinetsi. Amesgaizto bat izan behar, hori ezinezkoa zen. Baina ez zen amets bat, zoritxarrez errealitate hutsa zen.

Hori orain dela hiru urte gertatu zen, eta ez gara inoiz gehiago herrira joan. Nere leku maitea ezin dut inoiz gehiago ikusi. Gustora egoteko leku aproposa izan zen lekua, ahaztu behar izan dut betirako.



### Adio

Urtearekin batera Dermioz Dermio izeneko artikulu saila ere bukatzera doa. Artikuluaren helburua garbia zen: toki-izenari buruzko informazioa ematea euskaraz erabilera egokia izan zezaten, hots, argitzea zergatik idatzi beharko litzatekeen izen bat era batera edo bestera toki-izenaren historia eta erabilpena ezagutuz. Nafarroako izenak zirela eta Nafarkaria zen biderik aproposena euskaraz eman beharko litzatekeen tratamendua zabaltzeko.

Hiztunek dute azken hitza toponimo baten forma erabakitzerakoan, baina izugarria da horien usadioan komunikabideek duten eragina. Inor gutxi ohartuko da Izabarrek Belagua ala Belagoa esaten duten. Baina egunkariak zer idatzi, horixe hartuko dute egiazat. Horregatik da hain beharrezkoa komunikabideak toponimia kontuetan janztea, hobe beharrez min handia egin dezaketelako.

Emaitzak, haatik, ez dira nahi bezain gogoangarriak zenbait kasutan. Hor dabil, oraindik ere, *Atxitarte*. *Biaizpe* eta *Axitarte* dira Euskaltzaindiak ontzat emandako formak eta *Dos Hermanas* Nafarroako Gobernua ezagutzen duen forma ofizial bakarra. Hala ere EGUNKARIA tematurik dago ditxosozko aldaera horrekin. *Montejurra* bi seme sasikoak zituela salatzen nuen: *Jurramendi* eta *Mendixurra*. Hara non hirugarren bat aurkitu dugun: *Mendixaurra*. Berariaz hartutako izena gainera, ez baita kasualitatea Aiegiko bidexka baten izena *Mentisaurra* izatea. Baina Nafarroako Aldizkari Ofizialean sartzea *Nafarroa 2000* agiriaren eskutik ez da txantxetako kontua. Galde iezaiezue, bestela, Iraizotz-en bizi direnei, Nafarroako Aldizkari Ofizialeko errata grafiko batek *Iraitzo*-ko bizilagun bilakatuak. Aldizkari Ofizialak agintzen du eta Nafarroan ez da *Iraitzo*z baizik (begira telefono liburuan, eta ez da Telefonikaren akatsa, edo edozein planotan). Jakina telebisten kontrako lehergailua Ezkaban paratua zegoen, San Cristobal erabiltzea euskara gaiztoa balitz bezala. Lizarrerria Estellerria baino maizago ikusten da...

Baina orobat emaitza positiboa da. EGUNKARIAK toponimia zabaltzeko jarritako gogoia beste komunikabideetan ere nahiko genuke. Eskertzekoa da EGUNKARIAK eman duen erredua. Toponimia txikiaren bilketa 94ko abenduan bukatua izanen da, baina momentu horretan berean hasi beharko luke komunikabideen lankidetzan oinarritutako finkatze-prozesuak.

MIKEL BELASKO



## Jenero Xumekoak

### Zikoinak eta

**Z**ikoinak, eliztorreko guraitzak. Kanpaiari biloa apaindu eta erlojuari orduak kizkurtu. Nire maitale punkiarra, ez goratu tximak horretaraino, zikoinek begitan naukate eta.

JEREMIAS ERRO

### KAZKARROAN

A I N K H K E O L F A K  
O T I J A U G A L A R I  
U L A S E D U T A Z K E  
B F O R R G E M H I Z Z  
N O S E R O S B O K I B  
H A T Z I A I P A L Z I  
L T N A O K B B Z A U P  
D A A J E M A I B O R A  
I L Z N S R R N A L G U  
U R E A T E Z I J T E D  
G U Z E K I F A S Z O H  
U B I N E R U G N A R A

### LETRA ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan Iruñeko hiria inguratzen duten 9 udalerriren izenak. Izen hauek ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalean irakurrita agertuko zaizkizu.

## Bizi Bizian

**I**zugari folk taldeak bere lehendabiziko diskoaren grabaketari —diskoa baino disko konpaktoa— ekin dio aste honetan, Iruñeko Arion etxean. Kalean otsailerako egon liteke ha-

sieran fanfarre bat izan zen talde honen lana. Kantutegi zaharretik hartutako lanak eta beraiek landutako abestiekin osatu dute lehendabiziko disko hau.

# Izugari: fanfarretik folkera

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Ez da Izugarri taldeak grabatzen duen lehendabiziko diskoa, fanfarre zelarik Soinua disketxe zenarekin beste grabaketa egin baitzuen, eta merkatura atera. Egoera arrunt desberdina zen, baina. Hasierak ere, bestelakoak izan baitziren. Fanfarre moduan hainbat urtetan merezitako fama lortu ondoren, duela bi urte t'erdia, desegin eta beste bideak jorratzeari ekin zion taldeak. Horretarako urtebeteko etenaldia izan zuen Izugarri, eta hortik aurrera talde berria osatu, musika berriak landu, eta folk taldea osatu zuen. Ez zen, baina, erraza izan.

«Jauzi handia dago fanfarretik folk talde batera, jakina» —azaldu du Koldo Azkona taldeko partaideak— «arrunt desberdina baitira bi musika motak. Jendea musika berriarekin ohitzea, teknika berriak hartzea, planteamendua goitik behera aldatzea...». Horregatik, urtebete eman zuten talde berria egokitzeko, eta kantutegi berria aukeratzeko.

**HERRI KANTUTEGIARI EKARPENEA** Errazena jendea moldatzea izan zen, aurretik franko ezagutzen baitzuten elkar, baina zailena kantu berriak aukeratu eta taldeak nahi zuenari heltzea izan zen. Horretarako he-



Taldea, asteartean, Arion grabazio etxean.

JOXE LACALLE

ri baratza landu zuten.

Horrela, kanta gehienak herrikoiak dira, batzuk kantutegitik —«lapurtuta», haiek dioten bezala—, eta beste batzuk zenbait idazlerengandik hartuta. Hala ere, horrekin bakarrik ez direla

gelditu nabarmentzen du Azkonak. «Kantutegi herrikoia da gure musikaren oina, hori baita gure lurraldean egin den musika. Baina horretan gelditzen bagara, besterik gabe, akaso pobrea gelditzen da. Horregatik kanta bat aukeratzeko jakin behar dugu joan den mendekoa dela, eta estetika aldatu egin dela. Eta guk ere, herri honetako partaide garen aldetik, eta bizi dugunetik gure oportazioa egin behar dugu».

**«FOLKA JORRIA DA»** Horiez gain ere badira beraiek landutako kantak. Eta hori izan da azken urteotako lanik politena. «Kanta batzuk geuk sortzea oso erakargarria izan zaigu. Gainera asko sortu dira entseuetan bertan, eta hori zen guk genuen helburuetako bat: elkartzen garenean, ideiak eta musikak sortzea». Bidean kanta pila utzi dituzte, baina diskoa, orokorrean, orekatua aterako den esperantza

**G**rabazioak aste honetan eta hurrengoan izango dira Arion etxean, baina distribuzioaz Elkar arduratuko da.

dute. Folk da esparrua, baina horren barruan lbaratza joria dela aitortu dute, eta ez dute nahi sail baten barruan kokatu, mugak estuegiak izatea ondok.

Horregatik, Azkonak dioenez, talde eta toki guztietatik edan dute. «Folk musika zer den ere ez baitakigu. Oso zaila da zehaztea folk-rock, fusioa, eta abar. Gure eragina talde zeltiarrak eta Euskal Herriko hainbat taldetatik dator».

Folk musikaren mundua edeki beteta dagoela badirudi ere —Oskorri Euskal Herrian eta Ortzin Nafarroan, kasu—, ez dute horrela uste Izugarri, eta merkaturatu egon, badagoela azpimarratu dute. «Europa osoan egiten den folk musikaren barruan mota asko dira, eta badago merkaturatu, jakina. Ez da merkaturatu kontua, ideien kontua baizik».

Grabazioak aste honetan eta hurrengoan izango dira Iruñeko Arion grabaketa etxean, baina banaketaz Elkar enpresa arduratuko da. Produzioa taldearen ardurara izango da, ez baitira garaiak sobera onak talde berriekin apustua egiteko, nonbait. Merkatura disko konpaktoan eta kasetean argitaratuko da.

## «Jo ezan berriro»

A.B. / IRUÑEA

«Jo ezan berriro, Begoña». Ez zen 'Casablanca' filmaren bertsio berria, Arion grabazio etxean asteartean zegoen giroa baizik. Banan-banan, taldeko partaide guztiek behin eta berriro errepikatzen zuten kanta bakoitza, nahi zuten doinua atera arte. Grabazioa, ohi den bezala, soinu tresnaz soinu tresna egiten baita. Horretarako lehendabizi baxuak grabatzen du, horren gainean gitarra, ondoren gainontzeko soinu tresnek eta azkenean ahotsak, puzzlea balitz bezala. Begoña Unzueta gitarrak jolea kantaren azken akordearekin asmatzen saiatzen zen bitartean, taldeki-deek arretaz begiratzen zuten

grabazio gelako kristalaz bestaldetik. Hurrengo haien txanda baitzen.

Koldo Azkona, Patxi Atozki, Patxi Olaiz, Patxi Nuin, Begoña Unzueta, Fermin Gartxitorena eta Kiko bateria jolea dira taldeko partaideak, eta disko honen grabazioan Mikel Elizaga, Andoni Jimenez eta Francisco Javier Lekunberri musikarien laguntza izan dute.

Aste honetan eta akaso hurrengoan ere ariko dira grabazio lanetan, eta produzioa, nahasketak eta azken ukituak kontuan harturik, otsail aldera kalean izango da disko berria.

Hamabi kantak osatzen dute grabazioa, tartean Teobaldo erregeak egindako soinuaren oi-

narritutako bat, 'Xarmangarri' eta 'Oihanean' kanta zaharrak, Uztarrozeko Soka Dantza, Izugarri berak egindako bi arinarin, eta Patziku Perurena idazlearen eta Ferdinand Aire 'Xal-bador' bertsolari zenaren hitze-kin osatutako beste hiru.

Solasaldia izan bitartean, etengabeko lanean ari ziren musikariak eta teknikaria. Ohi denez, azken orduko konponketak eta bariazioak ere ez ziren falta. Grabazio etxeko atarian bikoizketa enpresa batendako ahots probak egiteko etorria zen jende ilara luzea zain zegoen bitartean, Izugarri taldea bi urteko lanari ahalik eta etekin gehien ateratzen saiatzen zen temati. «Jo ezan berriro, Begoña».



Disko konpaktoa otsailerako aterako da.

JOXE LACALLE

# Jesus De La Villa

..... xake jokalaria

**U**nai Garbisu 18 urteko xake jokalaria iruindar bikaina da. Eguntan jokatzen ari den Iruñeko Hiria Xake Txapelketan Nazioarteko Maisu izendapenaren bigarren araua lor dezake. Jesus de la

Villa bere maisua da. Azken bi urteotan Garbisuri dakien guztia irakasten saiatu da. Biak aipatu txapelketan aurrez aurre izanen dira heldu den asteazkenean. Maisua ikaslearen kontra.

## «Xakea garbia da»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

Palentziako Villahan herrian jaioa, Burgosen buru-belarri murgildu zen xakearen munduan, haren garbitasunak zora-biaturik. Ito arte murgildu zen, Burgos txikiegia eta itogarria baita xake jokalaria on batentzat. Haize berrien beharrak bultzaturik, xake jokalarien pelegrinazio berezia egin zuen «Espainiako xakearen Mekara», Bartzelonara alegia. Bertan bere xake gosea ase zuen, nahi adina ikasi zuen eta. Birritan Espainiako Xake Txapelketan txapeldun gertatu zen, eta Nazioarteko Maisu izendapena eta Maisu Handiaren lehen araua eskuratu zuen. Duela hiru urte Iruñera etorri zen, bertan Nafarroako Xake Teknikaziorako Eskolako burua izateko. Iruñeko Hiria Xake Txapelketaren barruan, heldu den abenduaren 5ean bere ikaslerik hoberena aurrez aurre izanen du. Norgehiagoka horretaz, txapelketaz eta Nafarroako xakeaz mintzatu zaigu Jesus de la Villa.

**EGUNKARIA.**— Zu eta Unai Garbisuren arteko norgehiagokak ikusleen artean ikusmin berezia sortu du. Zer-nolako sentsazioa piztu du zuegan?

**JESUS DE LA VILLA.**— Beste edozein norgehiagokari aurre egiten diodan modu berean eginen diot aurre Unairen kontrako partiduari. Guk lortu behar duguna zera da, bion arteko lehiari garrantzi handirik ez ematea.

**EGUNKARIA.**— Norgehiagoka heldu den asteazkenean, hilak 5, jokatuko duzue. Gerta liteke Garbisurentzat horretan Nazioarteko Maisuaren bigarren araua jokoan egotea. Berdin saiaturiko al zinateke garaipena lortzen?

**DE LA VILLA.**— Agian, subkonzientea medio, ez nuke bete-be-

tean jokatuko, normalean izaten dudana irabazteko gogo bera ez bainuke edukiko. Berak asko irabaz lezake partidu horretan, eta nik ezer gutxi. Baina argi dago nahita eta zuzenean ez niokeela inolako mesederik eginen. Ni xakean aritzen banaiz, horrelako norgehiagokak gustukoak ditudalako da, horretan garbitasuna eta duintasuna dakusadalako. Xakea garbia da. Horren garbia izanen ez balitz, ziurrenik ez nintzateke honetan honen gustura ariko.

**EGUNKARIA.**— Zure ustez, lortuko al du Garbisuk arau hori?

**DE LA VILLA.**— Unairentzat zaila da txapelketa, baina bere xedea lortzeko aukerak baditu. Orain arte (asteazkenean arte alegia) bi partidu jokatu ditu. Izetaren kontra irabazteko aukera asko izan zituen. Horrelako txapelketa batean jokatzen zuen lehen partidua zen, eta agian horren ondorioz huts egin zuen azkenean. Grenfeeld-en kontra, berriz, fitxa beltzekin lortu zuen, eta Grenfeeld txapelketako jokalaririk hobere-na dela esaten da. Araua lor dezakeela esanen nuke nik. Horretarako, ezin izanen du partidarik galdu (hori ez litzateke oso zaila), eta horretaz gain partida bakarria irabaztea aski litzateke berarentzat.

**EGUNKARIA.**— Egun Nafarroako Xake Teknikaziorako Eskolako maisua zara. Horrek ematen dizun ikuspuntu bikainetik, nola dakusazu Nafarroako xakearen egoera?

**DE LA VILLA.**— Eskolaren helburuak ez dira epe laburrean gauzatu. Xakean apurka-apurka menderatzen da teknika, eta urte asko behar dituzu horretarako. Hori dela eta, denbora luze pasatu beharko da eskolak fruituak eman ditzan. Dena dela, jokalaria patek maila ona hartzen duenean,



JOXE LACALLE

askoz gehiago aurrera dezake baldin eta bide ona eta entrenamenduen erritmoa markatzen badizkiote. Hori dela eta, eskolaren eragina nabaritzen hasi da. Esaterako, ezin da esan Garbisu eskolaren fruitua denik; baina bai, ordea, lagundu diogula.

**EGUNKARIA.**— Azken lau urteotan, Iruñeko Hiria Txapelketari esker, Nafarroako hiriburuan maila goreneko jokalaria izan dugu. Berpiztu al du horrek xake joka-

larien harrobia?

**DE LA VILLA.**— Nire irudiko bai. Aurten, adibidez, beste urteetan baino jende gehiago etortzen da partiduak ikustera, eta hori seinale ona da.

**EGUNKARIA.**— Ikusleen kopurua areagotu bada ere, txapelketaren maila apaldu egin da. Kolokan al dago txapelketaren gerora?

**DE LA VILLA.**— Argi dago aurten behera egin dugula, baina era honetako txapelketak urte askotan

**T**xapelketa batean Garbisuri nahita eta zuzenean ez nioke inoiz inolako mesederik eginen»

zehir antolatzen dira, eta garai hobeak helduko dira. Aurtengoa urte zaila izan da, eta hala eta guztiz ere txapelketa aurrera ateratu dugu. Hori dela eta, ez dugu zertan ezkor izan beharrik. Xake txapelketarik zaharrena Ingalaterran jokatzen da. Ehun urte baino gehiago dauzka txapelketa horrek eta, ziurrenik, ehun urte horietan partehartzaileen mailari dagokionez gora-behera handiak izan dira. Guk aurten urte txarra izan dugu, baina datozen urteotan txapelketaren aspaldiko maila berreskura dezakegu, eta agian gaintu ere bai.

**EGUNKARIA.**— Aurtengo txapelketaren erakargarritasuna, Unai Garbisuren jokoan ezezik, Peter Leko 14 urteko jokalaria bikainarenean ere badago. Jokalari helduak ez al zaituzte urduri jartzen mutiko bat aurrez aurre edukitzeak?

**DE LA VILLA.**— Judith Polgar neskato bat besterik ez zela lehen garaipenak lortzen hasi zenean, jokalaria helduek horri eusten zioten, eta neskato baten aurka jokatzeak urduri jartzen zituela argudiatzen zuten aitzakia gisa. Esperientzia handiko jokalaria batek, ordea, ez luke zertan txartoago jokatuko behar. Ume batek ezin ditu jokoaren arlo guztiak menderatu, izugarri ona izan arren, eta hori buruan eduki beharko luke beti jokalaria helduak, horri etekina ateratzeko. Dena dela, egia esateko zertxobait nerbiosten zaitu, eta batzuetan gazteek horri esker emaitza hobeak lortzen dituzte.

## NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

